

*KONTU KONTARI*

### **BATTITU COYOS ETA EUSKARA MAULEN UZTARTURIK**

2005eko agorrilaren lehen astean, Zuberoako Iratira joan nintzen zubererari buruzko nire lehen ikastaldia egitera. Badi-ra, beraz, hamasei urte. *Xiberoa* izeneko etxolan aterpetu ginen eta eskolak bertan eman zizkiguten. Irakasle apartak ukan genituen: Odette Mohorade, Jean Claude Sehebiage, Junes Casenave,... eta zubererarekin izan nuen nire lehen esperientzia estu hark bizitza guztirako markatu ninduen. Orduz geroztik aunitzetan errepikatu dut ikastaldi hori. Lehen ikastaldi hartan, egin ditudan gainerako guztietan bezalaxe, adiskide handiak egin nituen, eta horietako bat Battittu Coyos mauletarra izan zen. Ni zuberera ezagutzera eta lehen urratsak ikastera joana nintzen, bera bere xiberotarra aberastera.

Hamasei urte hauetan, Battittuk bide zabala urratu du euskararen arloan. Liburuak eta artikuluak idatzi ditu, Hezkuntzako ikuskaria izan da, irakasle Baionako unibertsitatean,... Azken urte hauetan erretretan sartu berria zaigu. Elkar ikus genuen azkenekoan ustekabe ederra eman zidan. Txomin Peillen euskaltzain zuberotarra emeritua izendatua zen eta berak izan behar zuen bere tokian sartzekoa. Eta ez hori bakarrik, 2011ko ekainaren 25ean sartze-hitzaldia defendatu behar zuen bere herrian, Maulen alegia. Amultsuki, bai ni eta bai Iratiko lehen

ikastaldi hartan ezagututako hainbat lagun gonbidaturik ginela zigun erran. Eman zizkigun azalpenen bidez, egun berean bere sartzeko-hitzaldia eta Maulen antolatu nahi zuten lehen Eüska-raren Egüna izanen zirela jakinarazi zigun. Handik zenbait egunetara, Andres Urrutia euskaltzainburuaren eta Mauleko Mixel Etxebest jaun meraren izenean igorritako gonbitea etxe-ko gutunontzian jaso nuen.



Ekainaren 25a iritsi zen eta eguzkia indarrez zetorrela zirudien. Egun ederra igarrita zeukaten. Goizeko 8etan, Iñaki Martiartu eta Manu Gojenola adiskide bizkaitarrak Urruñako nire etxean zeuden nire bila etorriak. Hamarrak eta laurden aldera Maulera iritsi ginen, eta ordurako bazen jende aunitz Mauleko herriko etxearen aitzinean bilduta. 10,30etan biziki hurbil den *Maule-baitba* zinetokirantz abiatu ginen denok. Han jende ezagun asko zeuden, ate aurrean itxoiten eta elkarrekin hitz egiten, Niko Etxart, Johaine Bordaxar, Maddi Oihenart, Junes Casenave, Allande eta Margaita Etxart senar-emazteak, Odette Mohorade, Jüje Etxebarne, Jef eta Bixente Goihenexpe anaiak, Bixente Claverie, Jean Claude Sehebiage, Ttittika Rekalt,... Herriko etxetik zinetokira zuberotar dantzarien taldea etorri zen lehenik, gibeletik herriko jauna eta gainerako hautetsiak, ondoren euskaltzainburua gainerako euskaltzainez inguraturik.

Battittu Coyos beraien artean zetorren. Emeki-emeki denok barrura sartu ginen eta berehala hasiera eman zioten ekitaldiari. Oholtza gainean bazen mahai bat erdi aldean ezarrita, eta bertan eseri zen Battittu Coyos ezker-eskuin Mixel Etxebest auzapeza eta Andre Urrutia euskaltzainburua zituela. Eskuin eta ezkerreko bazterretan gainontzeko euskaltzainak jarri ziren, beraien artean Jean Louis Davant eta Txomin Peillen euskaltzain zuberotarrak zirelarik.

Aurkezpen eta azalpen lanak Xabier Kintana euskaltzain idazkariak egin zituen. Ondoren Mixel Etxebest jaun merak harrera ezin hobea egin zigun, eta honek bukatu orduko, Andres Urrutiak hartu zuen hitza euskaltzain guztien izenean elesta egin zuelarik. Batak zein besteak euskararen ofizialtasuna eskatu zuten Zuberoarentzat eta Iparralde osoarentzat. Hori eginda, Battittu Coyos-ek sartze-mintzaldiari eman zion hasiera. Euskararen dikotomiaz mintzatu zen zubereraz; hain zuzen, euskaldun berria / euskaldun zaharra batetik, eta euskalkiak / euskara batua bestetik. Lehen atalari dagokionez, Zuberoan gurasoek seme-alabei euskara transmititu ez izanaren arrazoiak aztertu beharraz mintzatu zen, azken finean, ama-mintzairaren transmisio eza baita dikotomiaren egile nagusia. Euskara batuaren beharra defendatu zuen ondoren; guztiz beharrezkotzat jo zuen eta zubererarekin ongi uztartzen jakin beharra dagoela gaineratu. Euskara batuak ez dio, haren ustez, zubererari inolako kalterik egiten, biek elkar osatzen baitute.




Coyosen hitzaldiari Txomin Peillenek erantzun zion, berak garbi azaldu zuen bezala, munduko mintzaira ederrenean, hau da, xiberotarrez.

Battitturen idatziak ekarri zituen gogora: *Le parler souletin des Arbailles (Une approche de l'ergativité) 1999 eta Xiberotarra. Zuberera. Le dialecte basque souletin, 2007*. Horretaz gain, Zuberoako idazleen aipamen zehatz eta luzea egin zuen. Peillenek erantzuna bukatu orduko, euskaltzainburuak Coyos euskaltzain egin zuen eta akademiaren domina eta diploma eman zizkion. Biziki hunkigarria izan ziren Maddi Oihenartek ekitaldiaren bukaera aldean kantatu zuen abesti ederra eta Thornary eta Sarraillet koblakari gazteen bertset sentitu eta alegerak.

Zinetokitik irten eta herriko etxera itzuli ginen. Udaletxe aurreko zabalduan baziren edariez eta pintxoaz beteriko zenbait mahai. Huraxe zen Mauleko herriko etxeak bertara hurbildutako guztioi eskaintzen zigun aperitifa. Zenbait metrotara den arrabota handi –zabalean Zuberoako hainbat elkartek lehen Eüskararen Egüna ospatzeko ezarririko erakusmahaiak zeuden, eta haien giblean oihalezko aterpe eder baten barruan herri bazkarirako prest zeuzkaten mahai eta jarlekuak. Hara hurbildu ginen denok eta hango materiala ikusiz eta bertan zirenekin hizketan ordu erdi bat inguru eman genuen. Gero. euskaltzainak Altzürüküra joan ziren bazkaltzera eta gainerakook Mauleko frontoian ezarrirako mahai inguruan eseri ginen. Berehala horretarako arduradun zirenak lehen platera zerbitzatzaren hasi zitzaizkigun. Bigarren platerarekin batera *Xiberuko Zohardia* elkarteko kantariak Zuberoako kantore ederrak abesten hasi ziren, eta beraiekin batera, nola ez, han geunden guztiok. Desertako pastiza eta kafearekin batera lehen dantza-jauziak hasi ziren. Bazkaltiar aunitz altxatu eta dantzari lotu gintzaizkion. Gero gerokoa, eta geroko hori Zuberoan beti kanta eta dantza izaten denez gero, egun horretakoa ere horrelakoa izan zen.

Erakusgai edota salgai zeuden liburuen artean baziren bi pitxi ttipi eder, Junes Casenave-Harigileren *Aroa* eta *Lantare Sendagailü* izeneko liburuxkak, biak zubereraz idatziak. Lehena iaz plazaratu zuen eta eguraldiaren igarpenez aritzen da, bigarrena, oraintxe plazaratu berria duena, senda-belarrez. Junes Casenave erretretan daukagu, betherramitek Donapaleun daukaten erretira-etxean, baina buruz eta osasunez ongi dabilenez gero, euskaraz idazten jarraitzen du. Berak kontatu zigunez, ba omen ditu jokatu gabeko hamar bat pastoral.



Bazkalostean animazio ugari izan ziren: euskal dantzak, indar jokoak, botülüzea ---garai batean Zuberoako artzainek ordu aspertuak hobeto eramateko egiten zuten pilota jokoa---, eta elkarteek antolaturiko koreografia moduko bat.

Arratsaldeko 4,30etan, jendea herriko etxearen aitzinean biltzen hasi zen. Eüskararen Egüneko ekitaldietan parte har-

tzen ari zireneko asko ere bertara hurbildu ziren. Frantsesek espainiarren esku jarri nahi duten Aurore Martin zuberotarraren aldeko manifestazioa zen. Baionan, tenore berean, Zuberoako neska horren aldeko manifestazio jendetsua egiten ari ziren. Ni ere manifestaziora sartu nintzen. Karrikaz karrika eta plazaz plaza ibili ondoren jendarmeriaren kasernara iritsi ginen. Buruan zihoazenek aurrean zeramaten pankarta denon aurrean ezarri zuten. Halako batean, kasernako leiho batean bi jendarme gazte azaldu ziren eta, lotsagabeki, pankartari eta jendeari argazkiak egiteari ekin zioten. Manifestatzaileak ez ziren horregatik kikildu eta aldarrikapenezko hainbat oihu jaurti ondoren, itzulerazko ibilaldiari ekin genion. Hura bukatuta, jendeak aurreko jardueri lotu zitzairen. Ordurako, Battittu Coyos Altzürükütik Maulerat itzulia zen eta batzarri onez hartu gintuen.

Zortzietan oihalezko aterpea, erakusmahaiak eta gainekoak jaso ondoren, zuberotarrak *Xiberoa* kafetegira abiatu ziren arratseko poteo kantatuari hasiera emateko. Karrikaz karrika ibili behar omen zuten Zuberoako kantore ederrez bazterrak pozten. Guretzat, berandu samar zenez, itzulerako bideari ekin genion. Lehen Eüskara Egün hura ederra eta ongi antolatua bazen ere, ez zen nik itxaro nuen bezain biribila izan. Alabaina, lehen egunaren ondotik, gehiago etorriko dira, eta ardo onarekin gertatzen den bezala, urteekin ontzen joanen delakoan nago. Horretarako zuberotarrak izaten dira maisu.

Lerro hauetatik nire besarkadarik beroena Battittu Coyosi, luzaz jarrai dezan horrela, euskararen alde, lan eginez, eta baita Eüskararen Egüna antolatzen, modu batean edo bestean, ibili ziren guzti-guztiei ere, oraingo lana biharko etorkizun emankorra izanen delakoan. Autoan sarturik, etxera itzultzeko prestatzen ari ginela, jadanik kantatzen hasita zeuden zuberotarren aide ederra iritsi zen gure belarrietara.

*Argizagiak zelütik  
argitzen dizü ejerki.  
Ene maite pollita ez düzü ageri:  
Zelüko Jinko Jauna! Zer eginen düit nik?  
Zer eginen düit nik?*

*Joseba Aurkenerena Barandiaran  
Urruñan, 2011ko uztailaren 2an.*